

KULTUR ETXEA ERABILTZEKO ARAUAK.

Oiartzungo Kultur Etxeak herritar guztiei zabaltzen dizkie bere ateak. Bertan garatzen den jarduerarik nagusiena Manuel Lekuona Bibliotekarena da baina horretaz gain aukera zabala eskaintzen du bestelako kultur ekintza guztietarako.

Kultur Etxearen erabilpen egokiari begiraturaz jarraian datoz derrigorrez bete beharreko baldintza eta arauak:

1.- Idatzizko eskaera bat aurkeztu behar da Kultur Etxean, zazpi egun aurretik gutxienez, zer egin nahi den, zer egunetan, eta zer ordutan azalduz.

2.- Idatzizko eskaera hori zein elkartearen izenean egiten den adierazteaz gain, pertsona fisiko baten izen-abizen, helbide eta telefonoarekin osatuko da. **Eskaera sinatuta aurkeztu beharko da.**

3.- Kontutan izan Kultur Etxeko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10.00etatik 13.00ak arte eta 16,00-tatik 20-ak arte; larunbatetan, 10-etatik 13-ak arte. Udaran eta Eguberrietan: astelehenetik ostiralera, 8-etatik 14-ak arte; larunbatetan 10-etatik 13-ak arte.

4.- Biblioteka irekita dagoenean errespetatu isiltasuna.

5. - Gizabidez jokatu. Zaindu Kultur Etxeko instalazio, tresneria eta altzariak, erabilitakoa zegoen bezala utziz, bereziki ordena eta garbitasunari dagokienean. Ekintza amaitu ondoren, **mantenu arduradunari adieraziko zaio bukaera.**

6.- Udalaren baimen berezia behar da: ohiko ordutegitik kanpo hasten diren jarduerentzako, edota Kultur Etxeko tresneria kanpoan erabiltzeko.

7.- Kultur Etxeak eskaintzen duen tresneria erabili ahal izateko alde aurretik eskatu eta goian adierazitako ordutegiaren barruan antolatuko da ekintza. Ekintza beranduago bukatuko edota hasiko balitz, **eskatzaileak arduratu beharko du tresneria horren erabileraz**, aparatuak pizteaz eta itzaltzeaz, alde aurretik mantenuko arduradunarekin tresna horien erabilera ikasiz.

8.- Kultur Etxeko ohiko ordutegitik kanpo bukatzen diren ekintzei dagokienez, goian aipatutakoaz gain, antolatzailea lehioak itxi, argiak itzali, eta sarrerako atea ixteaz arduratuko da. Udaltzainek atea giltzatu dezaten eta alarma jar dezaten deituko ditu arduradunak, eta **hauek etorri bitartean arduradunak ezin izango du bertatik alde egin.**

9.- Antolatzailea Kultur Etxeko arauak bete eta betearazteaz arduratuko da. Egin ezean aurre egin beharko die gerta daitezkeen kalte eta ezbehar ekonomiko eta bestelakoei.

10.- Eskaera-orria sinatzeak erabilera-arau hauek onartzea dakar.